

Errusiarrak eta Martitz

Errusiarren espaziorako programe-tan diru faltagatik gora-beherak izan arren, San Petersburg-ego garraiorako ikerketa-institutuan Martitzeko zorua ikertzeko laborategi ibilkorra prestatzen ari dira. Irudian ikusten den ibilgailua "rover" motakoa da eta gaur egun era honetako asko daude: 70 kilotik hasi eta tona bat pisatzen dutenerainokoak. Martitzeko zoruaren, atmosferaren, klimaren eta abarren konposizioa neurtzea da ibilgailuaren egitekoa. Berez 1996.eko azaroan egin beharko luke bere lana Martitzen, baina epe hori errespetatuko dutela ez dago segurtatzerik. Aurten ere urrian Martitz aztertze-ko nazioarteko satelite bat orbitan jartze-koak ziren, baina zailtasunak izan dituzte.



San Petersburg-ego garraiorako ikerketa-institutuan Martitzeko zorua ikertzeko laborategi ibilkorra prestatzen ari dira errusiarrak.

"Scarab" edo Lurraren termometroa

Aurtengo urtarrilaren 25ean errusiarrak satelite meteorologikoa ipini zuten orbitan; Meteor III-7 izeneko, hain zuzen. Bertan Frantziako CNRS erakundeak prestatutako "Scarab" izeneko aparatua eraman zen espaziora, Lurraren energia neurtu ahal izateko.

Gure planetak erradiadorearen gisa jokatu du eta espazioko huts izoztura beroa igorri egiten da. Eguzkitiko energiak ordea, berotu egiten gaitu. Baina zurgatutako Eguzki-erradiazioen eta igorritako erradiazio infragorrien arteko batezbestekoa nolakoa da? Zer-nolako eboluzioa du?

Atmosferako poluzioak kliman izan dezakeen eragina jakiteko galdera hauei erantzutea interesgarria da, baina horretarako sistema bakarra atmosferako goiko geruzetan energi trukeak zehatz-mehatz eta denboraldi batean zehar (gora-beherak dektatuz) neurtzea da.

1990. urteaz gero, Lurraren erradiazio-balantzerik ez da satelitez neurtu, baina Scarab aparatua zorionez hutsune hori beteko du. 1995.ean dira beste bat orbitan jartze-koak eta 1997.ean ipiniko dute hirugarrena.

McDonnell Douglas-en jaurtigailua

McDonnell Douglas etxeak oso jaurtigailu berezia egin nahi du. Izan ere, espaziora bidali ondoren gero Lurrera jaitsi eta berriz aprobetxatu-ko baita. DC-X du izena eta prototipoa 50 milioi dolar kostatu zaio konpainiari.



McDonnell Douglas etxeak oso jaurtigailu berezia egin nahi du. Izan ere, espaziora bidali ondoren gero Lurrera jaitsi eta berriz aprobetxatu-ko baita.

Proiektua orain arte ongi garatu da, baina oztupoak sortu dira Estatu Batuetako Pentagonoak atzera egin duelako. NASAk ordea, milioi bat dolar erabiltzea erabaki du proiektu horretan. Izan ere, espazioko "taxi" honek hamabi tona material eraman ahal izango ditu eta horrelako jaurtigailua edukitzea interesga-

ria da espazioko egin-kizunetarako. Dena den, oraingoz probatu duten prototipoak 21 tona pisatzen ditu eta gero egingo den benetako jaurtigailuaren hirutik bateko eskalan eraiki dute.

MIR eta Skylab-eko egonaldiak

1973. urtean Estatu Batuek Skylab laborategia ipini zuten orbitan. Saturn V jaurtigailuaren bidez osatu zen 90 tonako laborategi hori eta hiru aldiz bisitatu zuten astronautek. Egondialdiak hilabete, bi hilabete eta hiru hilabetekoak izan ziren. Orbitan ipini eta urtebetera utzi zuten eta 1979. urtean Lurrera erori zen.

Harez gero Sobiet Batasuna izan da astronautak espazioan denbora luzez eduki dituen Estatu Batuetako astronautek gehienez ere 84 eguneko egondialdi egin dute, eta Sobietarrak izan dira marka guztiak hautsi dituztenak. Vladimir Titov eta Possa Maranov-ek Lurraren inguruan 366 egun igaro zituzten MIR laborategian. Valeri Poliakov berriz, urtarrilaren 10ean heldu zen MIR laborategira eta bertan 14 hilabete igaro arte ez da itzuliko. Datorren urtean izango da, beraz, Lurrean.

